

Maiatz luzea

Etxe batean, kakotik dilindan zeukaten urdaiazpiko gorri eder bat. Negu gorria zen eta urdaiazpikoari esker, ondotxo iraganen zuten, gose handirik izan gabe. Baina etxeko mutiltxoak, gose zen batean, honela esan zion amari:

- 5 – Ama, noiz jango dugu urdaiazpiko hori?
- Ai txotxo! Eramango du maiatz luzeak.

Nonbait, amak ez zuen nahi oraindik urdaiazpikoa hunkitzea. Handik aldi batetara, eskale handi bat joan zen etxe hartara eta, makilaz atea jorik, otoitzean hasi zen. Etxeko mutiltxoak etxe barrutik honela esan zion:

- 10 – Nor zara zu?
- Maiatz luzea naiz ni, erantzun zion eskaleak.
- Jaungoikoa! Zu zara beraz? Hementxe duzu, bada, gure amak gorderik daukan zuri emateko urdaiazpikoa.

15 Mutikoak hartu zuen, ia jaso ere ezin zuen urdaiazpiko gorri ederra eta agure eskaleari eman zion. Agurea, hain gauza ederra bere zorroan ikustean, poz-pozik joan zen bideetan zehar.

Ama etxera itzuli zenean, mutiltxoak kontatu zion urdaiazpikoaz egin zuena.



- 20 Eta amak:
– Txotxo! Zer egin duk?

– Ez zenuen bada esan maiatz luzeak eramango zuela? Harek du eraman.

25 – A! Ume aldrebes, zentzugabea! Berriz ere pasa beharko duk gose ederra eta baita guk ere hiregatik. Etxean genuen gauzarik ederrena galdu duk. Orain, talo eta artoz iragan beharko diagu negu osoa.

Baina, nahiz eta urdaiazpiko hura falta, goseak ez zuen etxe hartako inor hil.

Anjel LERTXUNDI, *Irakur 3*,
Gero, ediciones Mensajero.



kakotik : gainxtotik.

zeukaten : eduki, forma trinkoan. Ziten bezala.

urdaiazpiko : xingar.

ia jaso : kasik aitxatu.

agure : gizon zahar.

zorroan : zakuan.

1 ULERMEN GALDEAK

- "Eramango du maiatz luzeak". Zer erran nahi du amak ?
- "Eramango du maiatz luzeak" dio amak semeari. Mutiltxoak ulertu ote zuen amak egin erantzuna ?
- Zure ustez, "maiatz luzea" agurearen egiazko izena da ?

2 HIZTEGIA

- ▶ Hona lau izen "negu" hitzarekin konposatuak. Bakoitzaren definizioa emazu hiztegiaren laguntzaz.
 - Negu-bihotz
 - Negu-xori
 - Negu-buru
 - Negu-beltz

▶ Urdaiazpikoa zer da ?

- Artekia
- Xingarra

3 BERRIZ IRAKUR

▶ Zer galdegiten dio haurrak amari ?

- Ama, non jango dugu urdaiazpiko hori ?*
- Ama, noiz jango dugu urdaiazpiko hori ?*
- Ama, noiz emango dugu urdaiazpiko hori ?*

▶ Testuko erranaldi honetako hutsuneak hitz egokiez bete itzazu.

Nonbait, amak ez zuen nahi oraindik hunkitza. Handik aldi batetara, eskale handi bat joan zen etxe hartara eta, atea jorik, otoitzean hasi zen. Etxeko etxe barrutik honela esan zion.

makilaz

mutiltxoak

urdaiazpikoa

- ▶ Galde hauei erantzun zuzena eman.
- Zergatik mutikoak jakin nahi du noiz janen den urdaiazpikoa ?
 - Urdaiazpikoa zer den ez dakielako.
 - Gose delako.
 - Eskaleari eman nahi diolako.
 - Ez duelako maite.
- Zergatik mutikoak eman dio urdaiazpikoa agureari ?
 - Agurea eske dabilelako.
 - Agurea "Maiatz luzea" deitzen delako.
 - Agurea biziki gizon goxoa delako.
- "Negu gorria zen" agertzen da testuan. Honek erran nahi du :
 - Negua kolorez gorria zela.
 - Negua luzea zela.
 - Negu erdian edo minean zirela.
- ▶ Gizon eskalearen marrazkia egizu.